

OLATZ ALTUNA

Olatz Altuna: “Egoera desiragarriena da hau hizkuntza normalizazioaren ikuspegitik, gazte edo belaunaldi gazteak direlako euskara gehien hitz egiten dutenak.

Erabileran aldaketa gertatu da, neurria handi batean, gazte euskaldun gehiago ditugulako duela hogeita zazpi urte, laurogei eta seiean, hamar gazteetatik bi besterik ez ziren euskaldunak, gaur egun aldiz, ia zazpi euskaraz hitz egiteko gai da.

Datuei erreparatuta, egia da erabilera ez dela gaitasuna bezainbeste hazi. Kontuan izan behar dugu gazte hauek, gehiengoak, famili erdaldunetakoak direla lehenengo aldiz. Gehienak euskara eskolatik jaso dute, eta ez etxetik, eta beraien eguneroko jardun informalean, lagun artean, gertukoaren artean... erdaraz hobeto moldatzen da euskaraz baino. Garai batean, euskara ez formal hori etxetik jasotzen zen eta gaur egun asmatu behar dugu hutsune hori nola bete.”